Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko maiatzaren 5a, astelehena — 82 — Lunes, a 5 de mayo de 2025

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## HONDARRIBIKO UDALA

*Ekintzailetzaren sustapenerako eta enpresa lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak emateko deialdia.*

*Xedapena:* 2025eko apirilaren 16ko 2025/1333 zenbakia duen Alkate Dekretua.

*Oinarriak:* 2020ko urriaren 22ko 202 zenbakia duen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

*Xedea:* 2025 urtean ekintzailetzaren sustapenerako eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko emango diren dirulaguntzak emateko lehia bidezko deialdia zabaltzea, Ordenantza Orokorrak eta dagozkion Oinarriek diotenaren arabera.

Ondoren zehazten diren ekintza esparruetako jarduerak, oinarrien eranskinetan zehaztutakoak, lagunduko dira:

— I. eranskina: Ekintzailetzaren sustapena Hondarribian.

— II. eranskina: Txikizkako merkataritzaren eta zerbitzuen saltokien modernizazioa Hondarribian.

*Kopurua:* Emango diren dirulaguntzen kopurua 70.000 eurokoa izango da, gehienez. Zenbateko hau bi dirulaguntza lerroen artean banatuko da, Igo lerroaren zuzkidura 30.000 eurokoa eta II. lerroaren zuzkidura 40.000 eurokoa izango delarik, 1 0115.480.01.433.20 2025 eta 1 0115.771.01.433.20 2025 diru-sailen gain hurrenez-hurren.

*Eskaerak aurkezteko epea:* Eskaerak aurkezteko epea, hilabetekoa izango da, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita.

*Aurkezpena:* Eskabideak elektronikoki Hondarribiko Udalaren web orriko Sarrera Erregistroren bitartez aurkeztu ahalko dira. Horrez gain Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan zehaztutako beste edozein bidetatik.

Bide elektronikoa erabili beharko dute horretara behartuta dauden subjektuek (39/2015 legearen 14. artikulua): besteak beste, pertsona juridikoek eta izaera juridikorik gabeko erakundeek. BAZen bulegoan horretarako laguntza emango zaie tramite hau era elektronikoan egiten ikasteko.

Eskabidearekin dagokion dirulaguntza lerroaren oinarri espezifikoetan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko da. Eskabideak eta oinarriak www.hondarribia.eus/eu/izapideak-laguntzak-diru-laguntzak helbidean eskuragarri izango dira.

*Baldintzak eta balorazio irizpideak:* Bete beharreko baldintzak eta balorazioaren adierazleak eta puntuaketa, Oinarrien I. eta II. eranskinean zehazten dira.

*Ebazpena:* Dirulaguntza eskaerari buruzko ebazpena Alkatetzak emango du, dagokion txosten teknikoa eta Balorazio Batzordearen proposamena jaso ondoren. Ebazpen horrekin amaituko da administrazio bidea.

*Ebazteko eta jakinarazteko epea:* Ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita, eta hori, eskaera egin duten entitateei jakinarazpena modu elektronikoan, aipatutako helbidean pertsonalki emanda edo posta ziurtatu bidez egingo da, jaso duelako agiria sinatuta.

## AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA

*Convocatoria para la concesión de subvenciones destinadas a la mejora de la competitividad empresarial y el fomento del emprendimiento.*

*Disposición:* Decreto de Alcaldía n.º 2025/1333, de 16 de abril de 2025.

*Bases:* BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 202 de 22 de octubre de 2020.

*Objeto:* Proceder a la Convocatoria en régimen de concurrencia competitiva de ayudas para el fomento del emprendimiento y mejora de la competitividad empresarial del año 2025, en base a la Ordenanza General y las Bases correspondientes publicadas.

Se subvencionan en concreto dos ámbitos de actuación, detallados en sus anexos específicos:

— Anexo I: Fomento de iniciativas emprendedoras en Hondarribia.

— Anexo II: Modernización de establecimientos comerciales minoristas y de servicios de Hondarribia.

*Importe:* El importe máximo de las subvenciones a conceder asciende a la cantidad de 70.000 euros, divididos entre las dos líneas de subvención, siendo la dotación de la primera de ellas 30.000 euros y la dotación de la segunda 40.000 euros, con cargo a las partidas presupuestarias 1 0115.480.01.433.20 2025 y 1 0115.771.01.433.20 2025 respectivamente.

*Plazo para presentación de solicitudes:* El plazo de presentación de solicitudes será de un mes contado a partir del día siguiente a la publicación del anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Presentación:* Las solicitudes deberán presentarse por vía electrónica en el Registro de Entrada de la página web del Ayuntamiento de Hondarribia. También podrán presentarse por el resto de vías detalladas en el artículo 16 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

La vía electrónica será el medio a utilizar por los sujetos obligados a ello por el artículo 14 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, como son las personas jurídicas y las entidades sin personalidad jurídica, entre otros.

Las solicitudes incluirán la documentación detallada en los anexos correspondientes a cada línea de ayudas, disponibles en la dirección www.hondarribia.eus/es/tramites-ayudas-subvenciones.

*Requisitos y criterios de valoración:* Los requisitos e indicadores de valoración y su puntuación se especifican en los anexos I y II de las Bases.

*Resolución:* El órgano que resolverá las solicitudes de subvención será la Alcaldía, previo informe técnico y propuesta de resolución de la Comisión de Valoración. La resolución que se dicte pondrá fin a la vía administrativa.

*Plazo de resolución y notificación:* El plazo para la resolución y notificación expresa será de seis meses, contado desde la finalización del plazo de presentación de instancias y se notificará a las entidades interesadas mediante notificación electrónica, entrega personal en el domicilio señalado a efectos de notificación o mediante correo certificado y con acuse de recibo.

EK\CV GAO-I-2025-03106

Epemuga erabakiaren jakinarazpenik eman gabe igaroz gero, interesatua eskaera isiltasun administratiboaren ondorioz ukatutzat hartzeko legitimatuko du, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 25. artikuluaren 5. atalarekin bat eginda.

Eskaera eraberritzeko aukerarik ez du izango.

Gainontzeko guztian, argitaratutako Hondarribiko Udalaren Dirulaguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzak eta dagozkion Oinarriek diotena beteko da.

Hondarribia, 2025eko apirilaren 16a.—Igor Enparan Araneta, alkatea. (3106)

El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado la resolución legitima a los interesados para entender desestimada por silencio administrativo la solicitud de concesión de la subvención, de acuerdo con el apartado 5 del artículo 25 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

No habrá posibilidad de reformulación de solicitudes.

En todo lo demás se estará a lo dispuesto en la Ordenanza Municipal reguladora de concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Hondarribia y las Bases correspondientes.

Hondarribia, a 16 de abril de 2025.—El alcalde, Igor Enparan Araneta. (3106)